



TXIKITTO!

2022ko urria 210. zenbakia



ZIENTZIAREKIN IKASI ETA GOZATU

AURKIBIDEA

TXISTEAK	3	DENBORAPASAK	10-13
IKASLEEKIN	4-5	LEHIAKETA	13
BERRIKETAN		ZER IRAKURRI	14
IKASTETXEETAKO.....	6-7	BITXIKERIAK	
BERRIAK		IPUINA	15
SUKAL-SALTSAN.....	8	ZU BAI MARGOLARI...	16
NI BAI ARTISTA	9		

 **eta kitto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea
“...eta kitto!”
Euskara Elkarteak
Urkizu, 11
20600 Eibar
Tel: 943 206776

**Erredakzio-
kontseilua**
Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak

Administrazioa
Marisol Uriarte

Erredakzioa
Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak
Yanire Sagredo

Azaleko argazkia
Aldatze

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96





Zer esaten dio harri batek beste harri bati?
- Bizitza oso gogorra da!



Ume bat bere amarengana joaten da eta esaten dio:
- Ama, eskolan "Terminator" deitzen didate!
- Eta zuk zer erantzuten diezu?
- Sayonara, baby!

Zein da Bruce Lee-ren lehengusua?
- Broko Lee.



Historiako andereñok galdetzen dio Jaimitori:
- Zer gertatu zen 1812an?
- Nola jakingo dut ba nik, jaio ere ez nintzen egin-eta!



Emakume batek, txoridendara sartu eta kaiolan dagoen txoriaren izena galdetzen dio saltzaile gazteari.
Erantzuten dio saltzaileak:
- Auskalo!
Eta emakumeak:
- Oi! Zein auskalotxo polita!!

Eskolara joan eta arrebatxo berri bat duela esaten die Haritzek lagunei.
- Nola du izena? -galdetzen diote lagunek.
- Ez dakigu, oraindik ez du ezer esaten.





KLIMA-ALDAKETA



BIDEOA



Aldatze ikastetxeekok klima-aldaketaren inguruan egin dute lan eskolan eta gurekin partekatu dute bertan ikasitakoa.

JOANE VEGA,
11 URTE



Asteklimaren astearekin bat eginez, bi esperimendu egin genituen eskolan eta oso arratsalde dibertigarria pasa genuen. Horrela, lanketa egin ondoren, Aldatzeko LH-koek zer egingo dugun azalduko dizuegu: 4., 5. eta 6. mailakoek etxetik plastikozko ontziak ekarriko ditugu eta arrain itxura emango diegu. Horrez gain, 'Natura hemen hasten da' esaldiarekin kartelak egingo ditugu.

JUNE VALLADARES,
11 URTE



Gizakiaren eraginez tenperaturetan eta munduko klima ezberdinetan gertatzen diren epe luzeko aldaketa da klima-aldaketa. Beroa atmosferan pilatzen da eta, ondorioz, poloetako izotza urtzen da. Horrela, itsasmaila igotzen da, eta lehorteak, suteak eta goseteak gertatzen dira.



EKHIOTZ SANZ, 11 URTE



Egin genuen lehenengo esperimendua PH-ari buruzkoa zen. PH-ak gasak eta likidoak basikoak, neutroak edo azidoak diren esaten du. Esperimendu honetan errektiboaren bost tanta bota behar izan genizkien likido batzuei. Orduan, segundo batzuk pasa eta gero, likido horien kolorea aldatu egin behar zen. Urdina edo urdin-iluna bazegoen, basikoa zela esan zitekeen; hori-berdexka arraro bat ateratzen bazen, neutroa; eta gorria ateratzen bazen, azidoa. Honekin ikasi genuen CO₂-a azidoa dela eta, orduan euria egiten duenean, euri azidoa gertatu ahal dela.

EIDER VARONA, 11 URTE



Bigarren esperimenduan bi gauza egin genituen. Lehenengoan, izotz lehorra (CO₂ solidoa) urarekin nahastu genuen, eta nahasterakoan gasa irten zen. Izotza sublimatu egin zen eta, azkenean, CO₂-a atera zen. Gero, gauza berdina egin genuen, baina xaboa sartu genuen barruan. Orduan, burbuilak atera ziren, baina ez zuten flotatzen, lurrera erortzen ziren. Zergatik gertatzen da hori? CO₂-a oso dentsoa delako. Orduan, atmosferan geratzen da eta horregatik gertatzen da negutegi efektua.

JON SANJULIAN, 10 URTE



Negutegi efektua zer zen eta zeintzuk kutsatzen zuten gehien ikusi genuen tailerrean. Gehien kutsatzen dutenak autoak, fabrikak eta suaren kea dira. Bestetik, negutegi efektuari dagokionez, eguzki izpiak lurrera jaisten direnean errebotatu egiten dute, eta ezin direnez irten CO₂-a airea baino dentsuagoa delako, pilatuta geratzen dira.

TELMO ZULUETA, 11 URTE



Orduan, zer egin ahal dugu klima-aldaketa ekiditeko? Lehenik, urarekin ez jolastu. Adibidez, haginak garbitzen ditugunean, txorrota ez dugu denbora guztian zabalik eduki behar. Bigarrenik, beharrik ez dagoenean argia piztuta ez lagatzea. Adibidez, egun argia badago eta etxea argizatuta badago, ez da beharrezkoa argia piztea. Hirugarrenik, plastikoa eta ogitarteetarako erabiltzen dugun albal-papera ahalik eta gutxien erabiltzea, eta erabiliz gero, birziklatzea. Laugarrenik, erropa-garbigailua eta ontzi-garbigailua beteta daudenean bakarrik erabiltzen saiatzea, eta betea ez badago, EKO moduan erabiltzea. Eta bosgarrenik, automobila ahalik eta gutxien erabiltzea, eta oinez, bizikletan edo garraio publikoan mugitzea.



LA SALLE

Oporrak bukatu ziren eta eskolako martxa hartu dugu jada. Irailean zehar hainbat irteera egin ditugu kurtso hasiera atseginagoa izateko. Alde batetik, Donostiara joan ginen LH3, 4 eta 6.mailetakoko ikasleekin, euskerazko film bat ikustera. Alfonbra gorritik ibili ginen eta zinemaldiaren funtzionamendua ikusteko aukera ere izan genuen. A! eta aktore famaturen bat ere ikusi genuen! Gero hondartzara joan ginen eta egin zuen eguraldiarekin primeran ibili ginen. Eta nola ez, kurtsoari hasiera ona emateko, urtero bezela LH1-2 eta LH5-6 Arratera joan ziren. Ez pentsa irteerak bakarrik egin ditugula irailan, proiektu berriekin ere hasi gara, lan egiteaz aparte, esperimntuen bidez asko ikasten ari gara.



ALDATZE

Bi ikasturte luze ondoren Aldatzeko HH4-5 eta LH1-2 eta 3. mailetakoko ikasle eta irakasleok, Arratera igo ginen irailaren 20an. Atsegina izan zen berriro ere gurutze inguruan jolasten ibiltzea, hosto, ezkur, gaztainak... biltzea. Eguraldi eguzkitsu eta giro bikainean aritu ginen guztiok. Datorren ikasturte hasieran ere, bertan elkartuko gara. Iraileko azkeneko astean Aldatze ikastetxeko 6. mailako ikasleek Mad Science taldearekin batera Aldaketa klimatikoarekin lotutako tailer dibertigarri bezain interesgarri bat egin zuten. Olaiaren laguntzaz gas azidoak eta CO-2ak gure atmosferan duen eragina ezagutu zuten.

AMAÑA

Nolako sorpresa izan dugun Amaña herri-eskolako ikasle zein irakasleek ikasturte berria hastean. Ikaragarri gustatu zaigu eskolako patioko jolas-parke berria! Oso ondo pasatzen dugu bertan, asko disfrutatzen ari gara, soketan tximinoarena egiten, txirristatik jaisten, horma eskalatzen, garbigailu itxurako zuloetan sartzen, egurrezko etxetxoan izozki eta kafeak saltzen... Sekulako jolas-parkea dugu orain! Aupa Amaña eskolako jolas-parke berria!





ITURBURU

Ikasturte hasieran ohituratzat dugun irteera egin genuen irailaren 20an. Iturburuko ikasle eta irakasleak Arratera igo eta bertan sekulako egun ederra igarogenuen. 2. eta 3. ziklokoak oinez igo ginen Eibartik eta 1. ziklokoak autobusez Ixuarainok eta handik oinez Arratera. Eguraldi paregabea lagun izan genuen eta han bazkaltzeaz gain, jolas pilla bat egin genituen. Ikasturtea hasteko modu polita benetan.



URKIZU



Urkizu eskolan ikasturtea pozik hasi dugu. Oporren bueltan ikusi dugu eskola kanpotik kolore biziekin margotu digutela eta gimnasioan obrak egiten ari direla. Oso polita geldituko da!

Hasiak gara ekintza berezi batzuk egiten. Ziur hurrengo alean gauza gehiago izango ditugula kontatzeko. LH 6. mailakoek "Klima-aldaketaren tailerrak" egin dituzte klima-aldaketaren zergatiak ulertzeko. Interesgarria benetan. Azkenik, LHko maila guztiak Arratera igo ziren eguna pasatzera. Ederki pasa zuten bai antolatutako jolasetan, zein jolas librean.

ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo lagunak;

Hemen gaude berriro ikasturte berria gogoz hasteko prest!

Hilabete honetan jada izan ditugu ekintza batzuk; besteak beste, 6. mailakoek "Asteklima" tailerrak izan zituzten eskolako aretoan eta Txaltxa Zelaira joan ziren "Laborategi ibiltariko" tailerretara. Ikasturtean zehar egingo ditugun ekintza, irteera, barnetegi eta abar, antolatzen ari gara. Joango gara zuei poliki-poliki kontatzen!



SAN ANDRES



Zer moduz pasa dituzue oporrak?? Guk primeran, eta, orain, hemen gaude bueltan, indarberrituta eta gauza mordo bat egiteko gogoarekin. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleek gogor ekin diote ikasturte berriari. Morgan egon dira eta bertan zer egin dute?? Zinema-tailerra! Gauza pilla bat ikasi dituzte eta primeran pasatu dute!! Esperientzia errepikatzeko modukoa izan da!



Amonaren moka-tarta

Ummm... gozoa benetan hilabete honetako errezeta!
Denak txundituta uzteko, amatxo, osaba, lagunak...
Segi gozo, segi fin eta on egin!!

OSAGIAK:

- Almibarra egiteko, 7 koilarakada azukre eta 10 ur.
- 200 g gurin
- 2 arrautza
- 2 koilarakada nescafe



NOLA EGIN:

- 1.- Egin bizkotxo bat bezala, 4 arrautzekin.
- 2.- Moka: egin almibarra, 7 koilarakada azukre eta 10 ur erabiliz. Ura eta azukrea nahasi eta su ez-tian jarri egosten. Irakiten hasi orduko erantsi limoi zuku apur bat eta atera eltzea sutatik.
- 3.- Utzi hozten.

- 4.- Jarri 200 g gurin entsalada-ontzi sakon batean, eta joan pixkanaka almibarra gehitzen irabiatzen zoazen bitartean. Gehitu 2 gorringo irabiatzen jarraitzen duzun bitartean, baita bi koilarakada nescafe koilarakada ur batekin nahastuta.
- 5.- Jarri polit-polita. Nahi izanez gero, erabili txokolate xaflak edo malutak apaintzeko.



GEREZI ETA GAZTA TARTA AZKARRA

TI-TA

Taza batean bota ordena honetan osagaiak: 30 g gurin urtu, arrautza 1, azukrea (2 koilarakada), koilarakada 1 eta ½ gazta-krema, koilarakada bat limoi-zuku, 5 koilarakada irin eta koilarakada ½ legami. Nahastu ondo. Garbitu eta hezurra kendu gereziei eta gehitu. Pare bat minutu berotu mikrouhinean eta ez ireki bizkotxo erabat igo arte. Gereziak behar baino masusta gorria (franbuesak) ere erabil ditzakezue.



Galtzerdi-sugea

Burko zoragarria eta originala egingo duzue hurrengo pausoak jarraitzen badituzue. Etxean dugun materialekin egingo dugu gainera. Erraz-erraza!

MATERIALA:

- Koloretako galtzerdiak
- 2 botoi
- Zinta
- Orratza eta haria
- Delcron betegarria (kuxinak betetzeko materiala) eta bestela kotoia



NOLA EGIN:

- 1.- Moztu itzazue galtzerdiak orpotik eta puntan, irudian ikus dezakezuen moduan.
- 2.- Galtzerdi guztiak prest dituzuenean, lotu itzazue orratza eta hariarekin josiz.
- 3.- Galtzerdi-suge luzea prest duzuenean delcrona sartzen has zaitezke.
- 4.- Sugeari aurpegia egin nahi badiozue bi botoi jarri begiak egiteko eta zinta edo tela zati gorri batekin mihia.


Eta horra hor galtzerdi-suge-burko zoragarria! Bidaietarako, oherako, sofarako...












ZE BALIO DU ANIMALIA BAKOITZAK?




Animalia bakoitzak zenbaki bat du. Erreparatu eragiketei eta aurkituko duzu.

 = 15

 x  = 35

 +  +  = 20

 =  =

 +  = 

5 DESBERDINTASUNAK





HIZKI-ZOPA

Ogibideak

- Abeslaria
- Artzaina
- Dendaria
- Medikua
- Txistularia
- Anderenka
- Atezanio
- futbolaria
- sukaldaria


A	R	T	Z	A	I	N	A	B	S	K	E	P	O
E	W	A	N	D	E	R	E	N	O	X	T	A	E
B	T	X	K	A	T	I	S	O	X	T	A	B	U
H	E	K	S	F	T	U	L	A	R	I	A	B	U
V	U	K	A	D	E	N	D	A	R	I	A	Z	I
F	O	P	E	M	X	N	B	U	E	D	I	A	H
P	L	S	A	D	M	E	O	P	K	E	J	A	O
K	S	U	K	A	L	D	A	R	I	A	T	Z	A
J	I	F	U	T	B	O	L	A	R	I	A	O	R
K	A	B	E	S	C	A	R	I	A	K	E	I	T
O	K	A	R	A	S	D	E	F	A	T	Z	O	N
K	K	U	A	Z	A	B	A	T	E	Z	A	P	N
M	S	K	A	T	K	A	E	I	P	O	L	A	K

7 DESBERDINTASUNAK







MARRAZKIA BUKATU



LABIRINTOA



KOLOREZTATU





7 EZBERDINTASUNAK



Bidali erantzunak **AZAROAK** 7 baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



AURREKO ALEKO IRABAZLEA

Aupa Maddi Unamuno, txapelduna!
Aurreko aleko erantzunak bikain
asmatu dituzu eta zozketan zeu
irten zara irabazle. Ipuina eta
...eta kitto!-ren motxila zuretako!
ZORIONAK!

**Neure zorria eta biok** 6 urtetik aurrera

Eta da lan honen izenburua zorrotzak eta molestatuak direla zorriak buruan sartzen direnean egiten duten moduan. Baina askotan gertatzen da deserosoa ere erakargarria izatea. Nork esango luke! ZORROA, hain akats txikia, hain gogaikarria, hain bizkarroia, amaren, aitaren eta irakasleen halako gaitza ... haurrentzako albumeko protagonista eta heroi bihurtuta. Eta ez, ez da film honetako tipo txarra. Hala izan balitz, gure izenburuak beste izenburu bat izango luke...

**Supergabe** 8 urtetik aurrera

Adanen gurasoek erabaki dute semeari kontatu egingo diotela bizitza osoan ezkutatu dioten sekretua: Aire planetan, denek dituzte superbote-reak. Tira, denek, Adanek izan ezik. Deskubrituko al du zergatik? Liburu hau irakurtzen duzunean jakingo duzu.

**Indiako oasia** 10 urtetik aurrera

Sir George Ingalaterrako bere gazteluetako batean babesturik bizi da, baina Indiako Bengala eskualdearen hutsa du, han administratzaile nagusia izan baitzen. Haren biloba Annak orain herrialde hartan lan egiten du, kazetaritza ikasketak amaitu ondoren. Bertan gazte espainiar bat ezagutu du, Vicente Ferrer, txiroentzako ikastetxeak, aterpetxeak eta ospitaleak eraikitzen hasi dena. Anna haren proiektuan buru-belarri murgilduko da, eta bere aitona

**BITXIKERIAK**

Los Ángeles hirian auto gehiago daude pertsonak baino.



Naturak sortutako material gogorrena armiarma-sarea da.

Napoleonek kalkulatu zuen Egiptoko piramideen harriekin Frantzia osoa inguratuko lukeen harresia egin ahalko zela.





Sentimenduak

Bazen behin neska bat Lucia deitzen zena. Bere sentimenduak ez zituen bat ere kontrolatzen.

Egun batean nekatuta zegoen ez zuelako bere sentimenduak kontrolatzen eta zientzialari bat kontratatu zuen bera laguntzeko.

Gauean zientzialariak edari bat egin zuen. Lucia oso urduri zegoen eta laster lo geratu zen. Goizean esnatu zen, eta oso arraro sentitzen zen, zientzialariarengana joan zen. Orduan objektu bat eman zion eta esan zion objektu hori puskatzen bazen ezingo zuela bere sentimenduak kontrolatu. Oso pozik zegoen eta eskolara joan zen. Oso ondo pasatzen ari zen eta lagun asko egin zituen.

Asteak pasa ziren eta objektua apurtzen hasi zen baina eutsi zuen beste bi egun. Baina egun horretan mutil gaizto batek objektua apurtu zion eta sentimenduak ezin zituen kontrolatu. Orduan indar askorekin eta haserre mordoarekin mutila lurrera bota zuen. Mutilak barkamena eskatu zion baina berak sentimenduak ez kontrolatzerakoan oso haserre zientzialariarengana joan zen. Zientzialariak berriro objektua eman zion eta esan zion ez zuela gehiago apurtuko eta zaintzeko asko.

Orain gogorragoa eman zion eta denbora gehiago eutsi zion.

Urte batzuk pasa ziren eta objektua apurtu zitzaion. Orain sentimenduak kontrolatzen ikasi du.

Ala bada edo ez bada, sar dadila kalabazan eta atera dadila Untzagako plazan.



Alaitz, Enara, Ixone, Maider eta Nahia

ZU BAI MARGOLARI!

